



MUSIKA

Mirua, hegan doa zerura



MIRUA

MIRUA

OSO POLITA, 2022

XALBA RAMIREZ

2019an abiatu zuten Tolosaldean Maitane Iruñ eta Malentxo eta Mattin Zeberio anaiek Mirua taldea. Itxura batean pop elektroniko jatorra dirudienak, ñabardura eta erreferentzia beteta dakar euren lehen lana. Nabaritzen da bai, musika txikitatik daramatela zainetan.

Last Tour enpresaren Oso Polita zigiluarekin kaleratu duten EP-an batzen dituzten sei kantek, eta lehendik kaleratu zituzten beste biek, talde sendo bat erakusten dute. Hasiberriak diren arren, egiten dutena dakitela erakusten dutenak. *Txin txin*-en liquid drum and bassetik, oinarri housegoa duen *Koloreek*-era.

Kiliki Frexkorekin duten kolaborazioak sintetizatzen du taldeak ematen duen poz atsegin hori: nerabe desamodio kanta, broma pare batekin, eta pare bat meta-erreferentzia speedari eta bestela-

ko sustantziei. Gaztea izatea gazte izatea da, eta natural dator orain arte kamustuta ikusi duguna.

Goxoloin<3-k badu Ariana Granderen usainik, *Thank u, next* datorrit, esaterako. Eta aizu, a ze erreferentzia. *Kuttuna*-k badu bestelako ametsezko dardara bat. Eta *Eskurik gabe*-k EP-ari ematen dio behar duen itxiera berezia.

Ekoizpenak urrea dira. Normalki ez zaizkit gustatzen sobera ekoiztuak diren lanak. Baina elektronika munduan fin ibili behar da aspergarri eta, batez ere, aurreikusgarri ez izateko. Bestelako proiektu handien alboan (demagun Merina Gris), lan honek badu etxean kozinatutakoaren usainik, baina ez horregatik zapore pobregoz. Sample eta glitch eta geruzen errege izendatzeko prest etorri da Mattin Zeberio. Ez dezagun ahaztu, bere lehenengo lanean.

Edonola, hiruek osatzen dute bat. Eta hor dago grazia. Nerabetik asko du proiektu honek, erreferentzia eta estetikan. Eta hor irakurtzea gustatzen zait; xalotasun eta txolintasun puntu horretatik abiatzen dira, batzuetan esateko asko ez dutela dirudien arren, arnasa alai hartzeko kantuak eginez. Baina – eta garrantzitsua da –, ez hunkigarrismotik edo gora-bizitzatik. Hiperbolarik ez da gehiago behar hyperpopean. Etorriko zaizkie esatekoak.

Lan honek apur bat ixten du Chill Mafiak irekitako zirkulu bat. Euskal-zeira horretan aire freskoa ez dadila izan kanpoan egiten den zerbaiten kopia hutsa. Jarrera eta estetika garaiari lotuak zaizkio, eta naturalki mugitzen dira handik hona. Gazteek badakite identitatea arma bat dela, eta behar denean aldatzen dela. ●